

Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta

Emaitzen analisia

AURKIBIDEA

SARRERA

EMAITZANAGUSIAK:

1. Etxeko lanak egiten emandako ordu kopurua
 2. Uztartzeko alderdiei eskainitako denborarekiko gogobetetzea
 3. Uztartzeari lotutako kontuak bateratzeko zailtasuna
 4. Uztartzeko alderdiei lotutako aurreiritziak
 5. Baimenak eskatzeko zailtasuna
 6. Ordutegi motak eta malgutasuna
 7. Lan egiteko lehentasunak
 8. Lanarekiko gogobetetzea
 9. Enpresaren kargurako gizarte-prestazioak
 10. Prestakuntza akademikoa eta profesionala
 11. Seme-alaba adingabeen zaintza
 12. Mendeko pertsonen zaintza
-

LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA UZTARTZEARI BURUZKO INKESTA 2012. (CVL12)

SARRERA

Eustatek 2010ean jarri zuen abian Lana, Familia eta Norberaren Bizitza Uztartzeari buruzko Inkesta, Euskal AEn bizi diren landunek beraien lana familiarekin eta norberaren bizitzarekin uztartzeko dituzten aukerak aztertu asmoz.

Uztartzeak gure bizitzeko alderdi desberdinak orekatzea esan nahi du, eta horrek berekin du ordaindutako lana etxeko lanarekin, familiako erantzukizunekin eta norberarentzako denbora librearekin uztartzea. Horrela bada, Lana, Familia eta Norberaren Bizitza Uztartzeari buruzko Inkestak aipaturiko alderdi horiek uztartzeko aukeretan sakondu nahi du:

- **Lana**, bizitza ekonomikoari lotuta, horren truke sari ekonomikoa jasotzen da, horregatik esaten da lan produktiboa dela eta espazio publikoari lotuta dago.
- **Familia**, etxeko lanei eta familia (seme-alaba adingabeak, mendeko pertsonak...) zaintzeari lotuta, horregatik lan erreproduktiboa esaten zaio eta etxean egiten da.
- **Norbera**, norbere espazioari eta denborari lotuta, pertsonak norbere buruez arduratzeko da eta bere inguruarekin erlazionatzen dira. Hau da, espazio pribatua da.

Zentzu honetan, Eustatek egindako inkestan uztarketa neurtzeko zenbait gai erabili dira, denak aipaturiko alderdi horiei lotuta daude; uztartzeari, etxeko lanen denborarekin gogobeteta egoteari eta ordaindutako lanaren denboratik kanpo geratzen den bizitza pertsonalari buruzko alderdiak bateratzeko aukerari lotuta.

2010. urtean egin zen lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko lehenengo inkesta eta harrezkero urtero egiten da; beraz, dagoeneko hiru urtetako datuak ditugu. Informazioa urtearen azken hiruhilekoan biltzen da.

EMAITZA NAGUSIAK

Txosten honetan hirugarren inkestako emaitza nagusiak daude eta zenbait epigrafetan aztertuko dira. Inkesta hori 2012an egin zen.


1. Etxeko lanak egiten emandako ordu kopurua

Epigrafe honetan neurtu dira, funtsean, landun biztanleriak etxeko lanak egiten, 15 urte baino gutxiagoko seme-alabak zaintzen eta mendekotasunen bat duten pertsonak zaintzen igarotzen dituen orduak.

Oro har, emakumeek egunean gizonen ia ordu kopuru bikoitza igarotzen dute mendekotasunen bat duten pertsonak eta seme-alaba adingabeak zaintzen. Halaber, emakumeen ustez zailtasun handiagoa dute ordaindutako lana familiarekin eta norberaren bizitzarekin lotzeko. Gizonek adingabeak zaintzen egunean 2,9 ordu igarotzen dituzte eta emakumeek 4,6. Alde hau nabariagoa da mendeko pertsonak zaintzerakoan, gizonek egunean 1,4 ordu eta emakumeek halako bi (2,9 ordu) igarotzen baitituzte pertsona horien zaintzan.

LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA UZTARTZEARI BURUZKO INKESTA 2012. (CVL12)

1. grafikoa. Biztanleria landunak etxeko lanetan egunean igarotzen duen batez besteko ordu kopurua, sexuaren arabera. 2012



Iturria: Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta.

15 urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten emakume landunen ia erdiak (%47,9k) ordaindutako lana egiteaz gai, egunean 5 ordu edo gehiago egiten dituzte beraien seme-alabak zaintzen. Halaber, mendekotasuna duten senideak zaintzeari dagokionez, lana duten emakumeen %20,8k 5 ordu edo denbora luzeagoa ematen dute egunean zaintza-lan horietan; baina ehuneko hori %4,6ra jaisten da gizonezkoen kasuan.

Horrez gain, gizon landunen erdiak –%49,1ek– 2 orduz edo gutxiagoz artatzen dituzte seme-alabak; baina zazpitik batek -%15,3k- emakumeek adina ordu sartzen ditu zeregin honetan. Euskal AEko landunen artean, bestalde, etxeko lanen banaketa oso ezberdina da gizonen eta emakumeen artean: hamar gizonetik bederatzik –%91,5ek– 2 ordu edo denbora laburragoa ematen dute lan horietan, baina lau emakumetik batek baino pixka bat gehiagok –%27,9k– 3 ordu edo denbora luzeagoa ematen dute.

2010. urtearen aldean badaude desberdintasun batzuk: seme-alabak eta mendekotasunen bat duten pertsonak zaintzen 5 ordu edo gehiago ematen dituzten emakumeen ehunekoak jaitsi egin da, ehuneko 6,4 eta 15,8 puntutan hurrenez hurren.

2. Uztartzeko alderdiei eskainitako denborarekiko gogobetetzea


Kapitulu honetan uztartzeari lotutako alderdi batzuetan igarotako denborarekiko duten gogobetetzea aztertu da; seme-alaba adingabeak zaintzen, mendeko pertsonak zaintzen, etxeko lanak egiten, ezkontideak edo bikotekideak egindako lanetan eta bizitza pertsonalean oro har igarotako denborarekin duten gogobetetzea bereizten dira.

Bakoitzak bere gain hartutako zereginen arteko aldeak (aurreko epigrafean aipatu da alde hori) norberaren bizitzarako, aisiarako edo trebakuntzarako duten denborarekiko gogobetetasun mailan du eragina; izan ere, emakumeen ia laurdenak –%24,2– denbora horrekin pozik ez dagoela adierazi du, baina sei gizonetik batek –%16,8– bakarrik esan du gauza bera. Gogobetetasun maila hain txikia familia eratzen ari diren adinaren inguruan ematen da, hau da, 35 eta 44 urte bitartean; gero gogobetetasun maila hazten doa.

LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA UZTARTZEARI BURUZKO INKESTA 2012. (CVL12)


2010. urtetik aurrera bere bizitzarekin pozik ez dauden emakumeen kopurua pixka bat gehitu da (ehuneko 0,3 puntu), eta kasu bereko gizonena 1,6 jaitsi da.

2. grafikoa. Euskal AEko biztanleria landuna, uztartzen emandako denborarekin duen gogobetetzearen arabera. 2012 (%)



Iturria: Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta.

3. grafikoa. Euskal AEko biztanleria landuna, uztartzean emandako denborarekin duen gogobetetzearen eta sexuaren arabera. 2012 (%)




Iturria: Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta.

LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA UZTARTZEARI BURUZKO INKESTA 2012. (CVL12)

Eginkizunen banaketa ezberdin horren ondorioz, gainera, emakume landunen ehuneko handi bat (bostetik ia bat) ez dago batere pozik ezkontideak edo bikotekideak etxeko lanak egiteko ematen duen laguntzarekin. Lana duten gizon gehienak -%77,6-, ordea, oso pozik daude bikotekideak etxean egindako lanarekin.

Beste datu hau esanguratsua da: ezkontideak edo bikotekideak etxean egindako lanarekin oso pozik daudela adierazi duten gizonen ehunekoa 7,5 puntu jaitsi da 2010. urtetik hona.

4. grafikoa. Euskal AEko biztanleria landuna, ezkontideak edo bikotekideak uztartzen emandako denborarekiko duen gogobetetzearen eta sexuaren arabera. 2012 (%)



Iturria: Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta.


Hori gorabehera azpimarratzekoa da emakume landunak gizonak baino pixka bat gusturago daudela seme-alaben zaintzarekin -%62, gogobetetasun handia- eta mendeko pertsonen zaintzarekin -%44,7 handia hau ere-; gizon landunen kasuan, ordea, %50,9 eta %36,1 dira, hurrenez hurren, aipatu ehunekoak.

Seme-alabak eta mendekotasunen bat duten pertsonak zaintzeko lanarekin pozik dauden gizon eta emakumeen ehunekoa ere asko jaitsi da 2010. urtearekin alderatuta; 20 puntuko jaitiera izan da mendeko pertsonen zaintzan eta ia ehuneko 10 puntuko jaitiera seme-alaben zaintzan, bi sexuentzat.

Ondorengo grafikoa Euskal AEko biztanleria landunak uztartzeari lotutako alderdietan lortutako gogobetetzearen batez besteko puntuazioak daude. Oro har, biztanleria gustura dago ordaindutako lana eta laneko bizitza, familiakoa eta norberarena uztartzeko moduarekin, batez beste 6,3 puntukoa da gogobetetzea (gehienez 10 puntu izan zitezkeen). Balorazio txikiena mendeko pertsonen zaintzak lortu du (5,7 puntu) eta handiena ezkontideak edo bikotekideak etxeko lanak egiten igarotzen duen denborak. Azken balorazio honetan azpimarratzekoa da ezkontideak edo bikotekideak etxeko lanak egiten igarotzen duen denborari gizonak -7,7- eta emakumeek -5,8- ematen dieten puntuazioa.

LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA UZTARTZEARI BURUZKO INKESTA 2012. (CVL12)

5. grafikoa. Uztartzeko alderdiei eskainitako denborarekiko gogobetetzearen batez besteko balorazioa. 2012



Iturria: Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta.

Lurraldeari dagokionez, Araba da ongien kokatutako lurraldea eta gogobetetze maila altuena duena 6,8 punturekin; Bizkaia eta Gipuzkoa Euskal AEko batezbestekoaren inguruan daude, 6,2 punturekin.

Azpimarratzekoa da, gizonek gogobetetze maila handiagoa dutela emakumeek baino uztartzearekin lotutako alderdiei dagokienez, 6,5 eta 6 puntu hurrenez hurren, nahiz eta emakumeak izan etxeko lanetan ordu gehien igarotzen dutenak; beharbada horregatik da gogobetetzea baxuagoa.

Adina kontuan hartuz gero, alde txikiagoak daude, gazteenek (16-24 urte) eta adintsuenek (55 urte eta gehiago) uztartzeari lotutako alderdi hauekin 6,6 puntuko gogobetetzea adierazten baitute, aldiz, adin ertainetan batezbestekora gerturatzen dira.


LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA UZTARTZEARI BURUZKO INKESTA 2012. (CVL12)

3. Uztartzeari lotutako kontuak bateratzeko zailtasuna

Euskal AEko pertsona landunen hamarretik ia hiruk $-29,5\%$ esan dute zailtasun handiak dituztela lana eta mendekotasuna duten pertsonen zainketa uztartzeko. Zailtasun handia du, halaber, lau pertsona landunetik batek seme-alaba adingabeak zaindu behar dituenen. Era berean, landunen $18,1\%$ esanetan, ordaindutako lanean ematen duten denboraren ondorioz oso zaila da haientzat etxeko lanak egitea; are gehiago, lautik batek -24% esan du aisiaz edo trebakuntza bezalako beste jarduera pertsonal batez gozatzeko zailtasun handiak dituela.

Berriz ere, seme-alaben eta mendeko pertsonen zaintzan eman dira alde handienak 2010. urtearekin alderatuta. Alderdi bi horiek uztartzeko zailtasun handiak dituzten langileen ehunekoak 4,7 eta 5,6 puntu jaitsi dira, hurrenez hurren.

6. grafikoa. Euskal AEko landunak, uztartzeko alderdiak bateratzeko zailtasunaren arabera. 2012 (%)



Iturria: Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta.

Gizonek alderdi bakarrean dute emakumeek baino zailtasun handiagoa ordaindutako lana eta familia uztartzeari dagokionez: seme-alaba adingabeen zaintzan, hain zuzen. Izan ere, gizonen $50,3\%$ dute zailtasun ertaina edo handia, eta emakumeen kasuan $46,7\%$ dute.

Enplegatzaileek eta autonomoek gainerako landunek baino pixka bat zailtasun gehiago dituzte lana eta familia uztartzeko. Hain zuzen, enplegatzaileen $43,2\%$ eta autonomoen $32,5\%$ esan dute zailtasun handiak dituztela adingabeko seme-alabak artatzeko; eta gutxi gorabehera enplegatzaileen heren batek eta autonomoen lauren batek esan dute zailtasun handiak dituztela jarduera pertsonaletan aritzeko edo etxeko lanetan laguntzeko. Seguruena, horren ondorioz, kategoria bi horietako 3 landunetik ia batek adierazi du gogobetetze maila


LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA UZTARTZEARI BURUZKO INKESTA 2012. (CVL12)

oso txikia duela bere bizitzarako erabilitako denborarekin, eta hiru autonomotik bat eta enplegatzaileen %43,2 egoera berean daude seme-alaben zaintzari dagokionez.

Orokorrean, Euskal AEko landunen ordaindutako lana eta norberaren bizitza eta familia uztartzeko zailtasun maila 3,2 puntukoa da (gehienez 10ekoa izanik; eta 10 puntu izango lituzke uztartzeko bat ere aukerarik ez duen pertsonak). Lurraldeka, Araban daude uztartzeko zailtasun handienak (3,5 puntu) eta gero Bizkaian (3,4 puntu). Gipuzkoan, aldiz, zailtasun txikienak daude (2,6 puntu).

Landunek uztartzeko zailtasun handiena duten elementua mendekotasuna dutenak zaintzea da (4,1 puntu) eta jarraian seme-alaba adingabeak zaintzea (3,8 puntu). Ondoko datu hau ere azpimarratu behar da, gainera: gizonek eta emakumeek seme-alabak zaintzeko antzeko zailtasunak dituzte, baina mendeko pertsonak zaintzea 3,7 puntuko zailtasuna da gizonentzat eta 4,4koa emakumeentzat. Era berean, arazorik txikieneko alderdia kudeaketa burokratikoak egitea da.

7. grafikoa. Ordaindutako lana eta uztartzeko alderdiak bateratzeko zailtasunaren batez besteko balorazioa. 2012



Iturria: Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta.


Aldagai sozio-ekonomikoetan bereziki esanguratsua da egoera profesionala, izan ere, enplegatzaileek eta autonomoek arazo handiagoak dituzte ordaindutako lana etxeko lanarekin eta norberaren bizitzarekin uztartzeko (3,9 eta 3,5 hurrenez hurren) eta sektore publikoko soldatapekoak, aldiz, 10etik 2,8 puntuan geratzen dira.

LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA UZTARTZEARI BURUZKO INKESTA 2012. (CVL12)

4. Uztartzeko alderdiei lotutako aurreiritziak

Uztartzeak sortzen dituen balizko aurreiritziei dagokienez, esan beharra dago lana duten pertsonen %27,3aren ustez familiako arazoengatik eszedentzia edo lanaldi murriztua eskatzeak eragin handia izango lukeela bere ibilbide profesionalan.

8. grafikoa. Euskal Aeko biztanleria landuna, sustapen profesionala kaltetu dezaketen uztartzeko alderdien eta sexuaren arabera. 2012 (%)



Iturria: Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta.


Gainera, emakumeek gizonek baino beldur gehiago dute eszedentziek edo lanaldiaren murrizketek beren sustapen profesionalan izan ditzaketen ondorioez (%29,4 eta %25,5, hurrenez hurren). Adina kontuan hartuta, gazteek uste dute eszedentziak edo lanaldi murrizketak eskatzeak ondorio kaltegarriak izan ditzakeela haientzat: hamar gaztetik lauk horrela adierazi dute. Lana duten bost emakumetik batek uste du amatasunak sustapen desberdintasunak sor ditzakeela; baina gizonezkoen %5,4k bakarrik uste dute aitatasunak kalte egin diezaioketela. Hala ere, bost gizon landunetatik batek uste du oso kaltegarria izango litzatekeela bere lanerako aitatasun-baimena eskatzea.

2010. urteaz gero ez da askorik aldatu langileen iritzia uztartzeari lotutako baimenak eskatzean kalteak izateari dagokionez. Soilik nabarmendu behar da hurrengo datua: 5 puntu igo da aitatasun-baimena eskatzea oso kaltegarria izango litzatekeela uste duten gizonen ehunekoak.

Euskal Aeko biztanleria landunak enpresaren edo erakundearen barruko ibilbide profesionalan hautemandako aurreiritziei 10 puntutatik 2,7 puntu ematen dizkie. Biztanleria landunaren sustapen profesionalan eraginik handiena izango lukeen neurria eszedentziak edo familiako arazoengatik baimenak eskatzea litzateke, 3,4 punturekin.

LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA UZTARTZEARI BURUZKO INKESTA 2012. (CVL12)

9. grafikoa. Uztartzeko alderdiei lotutako aurreiritzien batez besteko balorazioa. 2012



Iturria: Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta.

Adierazle horretan Gipuzkoak du kalte txikiena (2,1 puntu) eta Bizkaiak handiena (3,1 puntu); Araba batez besteko balioetatik hurbilago da, guztira 2,9 puntu izan baititu.

Adinari dagokionez, 55 urte eta gehiagokoen kasuan aurreiritzia 2,0 puntukoa da, baliorik baxuenekoa; aldiz, baliorik altuena hartzen du 16-24 urte arteko gazteen artean, 4,0 puntukoa.

5. Baimenak eskatzeko zailtasuna


Enpresan edo erakundeetan zenbait baimen eskatzeko zailtasunari dagokionez, landunen %77,1aren esanetan zailtasun txikia du norbere gaiak konpontzeko lana uzteko.

Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzen lagun dezaketen neurriak dagokienez, biztanle landun gehienek lana aldi baterako utzi dezakete, eta landunen %59,8k soldatarik gabeko egun libreak eska ditzakete. Gainera, gainerako %51,9 inguruk esan dute eszedentziak edo lanaldi murrizketak lortzeko arazo gutxi dituztela.

2010. urtearekin alderatuta, langileek baimenak eskatzeko zailtasun handiagoak dituzte. Zailtasun txikia dutela adierazi duten langileen ehunekoa 10 puntu inguru jaitsi da ia baimen mota guztietan. Noizean behin lanera ez agertzeko zailtasuna bakarrik jaitsi da pixka bat gutxiago, 6,5 puntu.

LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA UZTARTZEARI BURUZKO INKESTA 2012. (CVL12)

10. grafikoa. Euskal AEko biztanleria, baimenak eskatzeko zailtasunen arabera. 2012 (%)



Iturria: Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta.


Oro har, sexuaren arabera ez dago alde handirik. Hala ere, emakumeen esanetan gizonek baino (%48,3) zailtasun txikiagoa dute lanaldi murrizketak eskatzeko –%53,5ek esaten dute ez dutela arazo handirik horiek lortzeko–; baina, noizbehinka lanera ez joateko baimena eskatu behar denean emakume landunek -%26,1ek- gizonek baino -%20,1ek- pixka bat zailtasun handiagoak dituzte. Seguruena, gainera, adinak eta lanpostuko antzinasunak murriztu egiten dituzte aipaturiko uztartze neurriak lortzeko zailtasunak.

Noizbehinka lanera ez joateari dagokionez autonomoak eta enplegatzaileak beste langile guztien parean daude, baina gainerako alderdietan muga gehiago dituzte. Hiru enplegatzaile eta autonomotik batek esan du egun libre bat hartzeko arazo handiak dituela; gainera, enplegatzaileen %45,3k eta autonomoen %48k uste dute eszedentziak eta lanaldiaren murrizketak eskatzean arazo handiak izan ditzaketela.

Enpresan edo erakundeetan baimenak eskatzeko zailtasunaren batez besteko puntuazioei dagokienez, noizean behin lanera ez joatea (1,9 puntu) eta lanik eta soldatarik gabeko egunak eskatzea (3,2 puntu) nabarmentzen dira eskuragarrienak bezala.

LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA UZTARTZEARI BURUZKO INKESTA 2012. (CVL12)

11. grafikoa. Baimenak eskatzeko zailtasunaren batez besteko balorazioa. 2012




Iturria: Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta.

Lurraldeei dagokienez, Gipuzkoan dago zailtasun maila txikiena -2,7 puntu- eta Araban Euskal Aeko handiena -3,5 puntu-. Lehen sektoreko biztanleria landuna izan ezik -4,2ko zailtasun maila duela esaten du- ez dago alde handirik.

Uztartzeari buruz kontuan izandako adierazle multzoari dagokionez, taula honetan kontuan izandako alderdiak laburtu dira lortutako batez besteko puntuazioekin batera. Baimenak eskatzeko zailtasunaren barruan honako hauek ere sartzen direla gogoratu behar dugu: lanik eta soldatarik gabeko baimenak, eszedentziak, lanaldiaren murrizketak eta noizbehinka lanera ez joatea. Eta uztartzearekin lotutako alderdiak bateratzeko zailtasuna dute seme-alaba adingabeen zaintzak, mendeko pertsonen zaintzak, etxeko lanek, kudeaketa burokratikoek eta jarduera pertsonalek. Azkenik, uztartzeko alderdiei lotutako kalteak izan ditzakete amatasunak/aitatasunak, aitasun-baimenak eta familiako arrazoiengatik eskatzen diren eszedentziak edo lanaldi murrizketak.

LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA UZTARTZEARI BURUZKO INKESTA 2012. (CVL12)

12. grafikoa. Uztartzeko alderdiei lotutako aurreiritzien batez besteko balorazioa. 2012



Iturria: Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta.

6. Ordu-tegi motak eta malgutasuna

Ordu-tegi motak eta malgutasuna aztertzean ikusi da lau pertsonatik batek ia egunero luzatu behar duela lanaldia; zentzu horretan, landunen %23,9k ia beti eta antzeko ehuneko batek batzuetan lan egin behar dute ezarritakoak edo aurreikusitakoak ordu gehiago. Bost enplegatzaile eta autonomotik lau daude egoera horretan. Eta egoera berdinean daude sektore pribatuko soldatapekoen %44,7 eta sektore publikokoak %42,6.

2010. urtearekin alderatuta nabarmen gehitu da lanaldia luzatu behar duten langileen ehunekoa. Ehuneko 5 puntu igo dira bai lanaldia eskuarki luzatzen dutenen ehunekoa bai noizean behin luzatzen dutenena.

Uztartzean laguntzeko beste neurri bat irteteko ordu-tegi malgua da; bada, lana duten bost pertsonatik bik erabiltzen dute (%40,6), baina emakumeek (%37) gizonek (%43,8) baino gutxiago.

Etxean lan egiteari dagokionez, %8,2k etxean egiten dute lan noizean behin, eta %4,6k gutxienez egunen erdietan egiten dute lan etxean. Oro har, lana duten zortzi pertsonatik batek aldizka edo sarri etxean egiten du lan.


2010. urteaz gero ordu-tegiaren malgutasuna murriztu egin da; ordu-tegi malgua duten pertsonen ehunekoa 1,5 puntu txikiagoa da. Etxean lan egiten duten pertsonen ehunekoa 2010. urtekoaren antzekoa da.

LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA UZTARTZEARI BURUZKO INKESTA 2012. (CVL12)

7. Lan egiteko lehentasunak

Lana duten pertsonen lan egiteko lehentasunak lurralde historikoka aztertzean ez da alde handirik ikusi egoera profesionalari dagokionez; soldatapekoak izan nahi duten langileen ehunekoa Euskal AEkotik (%83,6) hurbil dago. Baina gainerako kategorietan desberdintasun handiak eman dira. Gipuzkoak profil zehatza du: lurralde honetan lan egiten duten pertsonen erdiak baino gehiagok -%57,4- nahiago du enpresa txiki batean lan egin; eta antzeko ehunekoak, %55,5, nahiago du sektore pribatuan lan egin. Profil hori ez dator bat Arabako landunen profilarekin: %63,6k enpresa handi batean lan egitea aukeratuko luke eta %56,1ek nahiago du sektore publikoa.

13. grafikoa. Euskal AEko biztanleria landuna, laneko lehentasunen eta lurralde historikoaren arabera. 2012 (%)



Iturria: Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta.

Egoera profesionalean izan ezik (bizkaitarrek nahiago dutelako euren negozioa eduki, %15,8) Bizkaia, Arabako profiletik hurbilago egon arren, bi lurraldeen artean dago: %57,7k nahiago dituzte enpresa handiak eta %53,9k sektore publikoa.

2010. urtearekin alderatuta egoera profesionalari lotutako lehentasunek ez dute aldaketa handirik izan. Alabaina, enpresaren tamaina eta lanbidearen sektorea aztertzean alde handiak daude; bi kasutan ehuneko 10 puntu inguru gehitu da enpresa txiki batean eta sektore pribatuan lan egin nahi duten pertsonen ehunekoa.

Sexuaren arabera alde oso handiak ematen dira lan egiteko lehentasunetan. Emakume landunen %59,8k sektore publikoan lan egin nahi dute, eta gizon landunen %43,7k uste dute gauza bera. Litekeena da emakumeek sektore publikoan lan egiteko lehentasuna izate honen atzean uztartzeko neurriak eskurago izateko ustea egotea. Gainera, ordaindutako lana duten emakumeen %12,4k bakarrik nahiago dute autonomo izan; eta gizonen %19,7k aukeratzen dute bide hori.

Era berean, autonomoen erdiek baino apur bat gehiagok -%53,6k- eta enplegatzaileen %43,8k soldatapekoak izatea nahiko lukete.

LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA UZTARTZEARI BURUZKO INKESTA 2012. (CVL12)

8. Lanarekiko gogobetetzea

Lanpostuari dagokionez, landun gehienak (%51,4) ez daude inola ere gustura beraien sustapenarekin. Ondoeza horrek gora egiten du adinarekin eta eragin handiagoa du emakumeengan (%52,8) gizonengan (%50,2) baino.


Langileek lanari lotuta duten atsekabe handiena beren lanaren sustapena izan arren, 2010. urtearekin alderatuta atsekabe hori ehuneko 3,5 puntu jaitsi da.

Gustura ez egoteko bigarren alderdia, nahiz eta aurrez aipatutakotik alde handira egon, ordutegien malgutasuna da: bost landunetatik bat -%20,6- ez dago inola ere gustura beraien lantokietako ordutegi zurrunarekin. Atsekabe hau emakume landunen %22,3k eta gizonen %19,2k dute.

Horrez gain, landunen %14,3k ez dago batere gustura lanaldiko atsedentartearrekin.

Landunen %11,2 ez dago batere pozik lanpostuaren egonkortasunarekin; baina, beste aldean, landunen %61,1ek gogobetetze maila handia du alderdi horri dagokionez. Sexuak berezita, lanpostuaren egonkortasunari lotutako gogobetetze maila eskasak eragin bera izan du gizonengan eta emakumeengan; beraz, datu hori aintzat hartuta, emakumeek egoera onartzen dutela pentsa daiteke. Gainera gazteengan eman dira ehuneko handienak, %23,7 ez dagoelako pozik bere lanpostuaren egonkortasunarekin.

14. grafikoa. Euskal AEko biztanleria landuna, lanpostuari lotutako alderdiekiko gogobetetzearen arabera. 2012 (%)



Iturria: Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta.


Gehien baloratu diren alderdiak oporrak eta baimenak dira, landunen %68k adierazi baitute oso pozik daudela, baita lanaldi mota ere, antzeko ehunekoarekin (%65,3).

LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA UZTARTZEARI BURUZKO INKESTA 2012. (CVL12)

9. Enpresaren kargurako gizarte-prestazioak

Zeharkako neurri batzuen ondorioz soldatapekoek beraien laneko bizitzarekiko duten gogobetetze maila hazi egin daiteke. Zentzu honetan, enpresak pentsio-planak edo osagarriak sortzea nabarmentzen da, bost soldatapekotik batek (%19,4) pentsio-planetarako ekarpenak jasotzen baititu bere enpresan. %33 prestakuntza pertsonala ere finantzatzen duten enpresetan dabil eta %16,4 osasun gastuetarako laguntzak aurreikusita dituzten enpresetan.

15. grafikoa. Euskal AEko soldatapeko biztanleria, enpresaren kargurako gizarte-prestazioekin. 2012 (%)



Iturria: Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta.

Lanpostuari lotuta dauden beste prestazioen artean enpresek jangelarako ematen dituzten laguntzak daude –langileen %19,4k dute- edo garraiorako ematen dituztenak (%17,3). Kasu guztietan, soldatapeko emakumeak baldintza txarragoetan daude, baina alde handienak honakoetan ematen dira: jangelarako laguntzetan emakumezko soldatapekoen %14,9k dituzte laguntza hauek, eta gizonezkoen %23,6k; garraiorako laguntzak izan dituzte: emakumezko soldatapekoen %13,2k eta gizonezkoen %21,2k; eta pentsio-planak sortu dituzte: emakumezkoen %16,5ek eta gizonezkoen %22,4k. Alde hauen atzean ekonomiako adar batzuen feminizazioa, adibidez, zerbitzu sektorearena, behin-behinekotasuna edo laneko prekarietatea egon daitezke.

Pentsio-planak, prestatzeko laguntzak, jangelako laguntzak, garraiorako laguntzak eta osasun gastuetarako laguntzak dira langile gehienek dituzten gizarte-prestazioak; hala ere, 2010. urtearen aldean hauexek murriztu dira gehien. Prestatzeko laguntzek eta pentsio-planek ehuneko 3 puntu egin dute behera; eta osasun gastuetarako laguntzek eta jangelarako laguntzek 4 puntu. Baina alderik handiena garraiorako laguntzetan eman da, ehuneko 8,5 puntu murriztu baitira.

LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA UZTARTZEARI BURUZKO INKESTA 2012. (CVL12)

10. Prestakuntza akademikoa eta profesionala

Enpresako edo erakundeko lanpostura egokitutako prestakuntza akademikoari dagokionez, bost emakumetatik batek dio bere prestakuntzari dagokiona baino postu baxuagoa duela, baina gizonen kasuan %14,6 baino ez dira egoera horretan daudenak.

Lau landunetatik ia hiruren ustez bere lana duen prestakuntzara egokitzen da, baina %17,1en ustez lanpostuan behar den baino prestakuntza handiagoa du. Desoreka honek eragin handiagoa du emakumeengan –%20– gizonengan baino (%14,6). Bada prestakuntza akademikoak lanerako erabilgarritasun txikia duela dioen talde garrantzitsu bat ere (%26,1).

%57,1en esanetan, azken 12 hilabeteen bere enpresan edo lantokian ez da inolako ikastarorik eman edo finantzatu, nahiz eta eman denetan %31,2k hartu duen parte.

2010. urtearekin alderatuta 1,5 puntu jaitsi da egiten duen lanerako behar dena baino prestakuntza handiagoa dutela adierazi duten pertsonen ehunekoa; baina bestalde, nabarmen gehitu da ezarritako lana gauzatzeko beste prestakuntzaren bat behar dutela adierazi duten langileen ehunekoa: %2,9tik %7,7ra gehitu da.

11. Seme-alaba adingabeen zaintza

Bikoteko kide biek lan egiten dutenean, adingabeak lanalditik kanpo zaintzeko zeregina kasuen %93,9an aitak eta amak betetzen dute. Kasuen %0,5ean bakarrik arduratzen da aita adingabeen zaintzaz, eta %4,3an ama

2010. urtearekin alderatuz, lanalditik kanpoko zaintzako desberdintasunak azpimarratzeko modukoak dira. 2010. urtean bi gurasoek zaintzen zituzten seme-alaben ehunekoa %84,7 zen; 2012. urtean, aldiz, ehuneko hori 9,2 puntuz gehitu da. Halaber, adingabeak amak zaintzen dituen kasuak ehuneko 4,9 puntuz jaitsi dira, eta gizonen kasuan %0,5ean mantendu da.

Familia hauetan, gainera, lanaldi barruan eta eskola orduetatik kanpo seme-alaba adingabeak zaintzen dituen kasuen %56,3an ordaindu gabeko senide edo pertsonak dira, %15,6an bikoteko kide biak eta kasuen %12,3an ordaindutako beste pertsona batzuk.

2010arekin alderatuta, lanaldian zehar baina eskola orduetatik kanpo senideek zaintzen dituzten umeen ehunekoa ehuneko 8,7 puntuz igo da; eta gurasoek zaintzen dituzten umeen ehunekoa neurri berean murriztu da (8,7 puntuz).

12. Mendeko pertsonen zaintza

Euskal AEko landunen laguntza behar duten (mendeko) pertsonen %86k 65 urte eta gehiago ditu; %70 emakumeak dira, eta %27 landun horren etxebizitza berean bizi da.

Mendekotasuna duten senideak zaintzeari dagokionez, lana duten emakumeen %40,1ek 3 ordu edo denbora luzeagoa ematen dute egunean zaintza-lan horietan; baina ehuneko hori %16,9ra jaisten da gizonezkoen kasuan.

LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA UZTARTZEARI BURUZKO INKESTA 2012. (CVL12)

Mendeko pertsona hori etxean duen bikoteko kide biek lan egiten badute eta pertsona hori lanalditik kanpo zaindu behar denean, kasuen %58an ordaindu gabe dauden beste senide batzuek zaintzen dituzte mendeko pertsona horiek eta kasuen %10,7an bikoteko kide biek zaintzen dute. Alabaina, kasuen %2,2an soilik gizonezkoek zaintzen dituzte mendeko pertsonak, eta kasuen %2,1ean emakumezkoak bakarrik arduratzen dira pertsona horren zaintzaz.

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del



www.eustat.es